

Euskadi, auzolana

ELISKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Zazpi euskal sagardotegi, Nazioarteko onenen artean

'The Cider Insider. The essential guide to 100 craft ciders to drink now' liburuan, Susanna Forbes kazetariak «edan beharreko» sagardoak bildu ditu

AMALIA IBARGUTXI

Sábado, 6 octubre 2018, 22:36



Sagardoa toki askotan da bertako produktu. Besteak beste, Ingalaterran, Galesen, Alemanian, Asturiasen, Galizian, Britainian, Austrian, Irlandan, Norvegian eta, noski, Euskal Herrian. Herrialde horietako ordezkariak hartu dute parte, hain justu, Astigarragako Iretza sagardotegian egindako I. Sagardoaren Kultura eta Turismoaren Topaketan. Bertan, 'The Cider Insider. The essential guide to 100 craft ciders to drink now' liburua aurkeztu zuen Susanna Forbes kazetari eta idazle britaniarrak. Euskal Herrian ekoiztutako zazpi «edan beharreko» artisau sagardo aipatu ditu.

Aurkezpenean, liburuan aipatzen diren sagardo batzuk dastatzeko aukera izan zen. Ingalaterra, Gales, Britainia, Normadia, Alemania, Italia, Australia, Lanada, Zeelanda Berria, Hegoafrika, Asturias, Galizia eta Euskal Herriko 100 sagardo artisau gomendatzen ditu liburuan Forbesez. Tartean, Euskal Herriko 7 agertzen dira: Zelaiako Gorenak Sagardoa (Hernani, Gipuzkoa), Zapiaingo Euskal Sagardoa Premium (Astigarraga, Gipuzkoa), Isastegiko Euskal Sagardoa (Tolosa, Gipuzkoa), Gartziategiko Gorenak Sagardoa (Astigarraga, Gipuzkoa), Gaztañagako Gorenak Sagardoa (Andoain, Gipuzkoa), Bereziartuako Euskal Sagardoa (Astigarraga, Gipuzkoa) eta Bordattoko Txalaparta (Jatsu-Garazi, Nafarroa Beherea).

Ardoa, garagardoa eta sagardoan berezituriko kazetaria eta idazlea da Forbes. Jatorriz, Ingalaterra osoan sagardo usadio handiena duen Herefordshire eskualdekoa da eta Little Pomona izeneko sagardotegia martxan jarri berri du.

Sei urtetan zehar gauzatu duen ikerketan, Forbesek sagardoa ekoizten duten lurraldeak arakatu ditu. 2018ko martxoan bere ikerketak Euskal Herrira ekarri zituen, eta ordurako sagardoaren inguruko erreferentziak bazituen arren, Forbesek sagardotegi batzuk bisitatu eta sagardoak dastatzeko aukera izan zuen, euskal sagardoaren kultura ere ezagutuz.

Bisitaren ondorioz, 7 euskal sagardo nabarmentzeaz gain, Euskal Herriko sagardoaren kultura ere jorratu du Astigarragan kokatua dagoen Sagardoetxea Sagardoaren Museoaren inguruan idatzita.

'The Cider Insider' liburuaren aurkezpenean, Astigarragako Iretza sagardotegian, Ingalaterra, Gales, Alemania, Asturias, Galizia, Britainia, Austria, Irlanda, Norvegia eta Euskal Herria. Zorione Etxezarraga Astigarragako alkatea, Harkaitz Millan Basquetor-eko Zuzendaria eta Maite Cruzado Gipuzkoako Foru Aldundiko Zuzendaria ere izan ziren. Topaketa horretara gerturatutako ordezkariak, sagardoaren kultura eta turismoa munduan sustatzeko nazioarteko sarea martxan jartzea adostu zuten. Hala, sagardo eta sagardogile horien guztien informazioa bilduko duen webgunea martxan jarriko dute, eta proiektua indartzen lagunduko duten europar finantzaketarako aukerak aztertuko dituzte.

TEMAS **Euskera**



La mejor selección de noticias en tu mail

Recibe las principales noticias, análisis e historias apuntándote a nuestras newsletters
Apúntate

Lo + leído

El Correo

Zurekin

[Top](#)

50


- 1 **ARRAKASTAREN ETA PORROTAREN KOADERNOA**
- 2 Hego haizea
- 3 Lanerako prest
- 4 Lujanbio, Mendiluze eta Colinaren bertsoak, gaur, Deustun
- 5 Hazten jarraitzen duen Azoka

 **Comentarios** 


Patrocinada

Noticias relacionadas


«Euskarak bizigarri bat behar zuen, eta hori izan da Euskaraldia»



Euskaraldia amaituta, bide luzea ikusten dute egiteke




Indarberrituta dator literatura Azokara



Fotos




📷 Festival VIPHOTO, en imágenes



📷 La época de la fantasía llega al Guggenheim



📷 Concierto de Navidad



📷 Última exposición del año

Vídeos



▶ **La Policía detiene a un fugitivo buscado por las autoridades de Montenegro**



▶ **Susana Díaz advierte a Ciudadanos que "es el momento de demostrar que es ser un partido constitucionalista"**



▶ **Nace una cría de oso polar en Berlín aunque sus posibilidades de sobrevivir son escasas**



▶ **Arrestado el nuevo capo de la mafia, Settimo Mineo**



EL CORREO

© DIARIO EL CORREO, S.A. Sociedad Unipersonal.

C/ Pintor Losada 7 48004 Bilbao



vocento ✓